



# URTEKO TXOSTENA 2019

BIZI ZURE IDEIETATIK



gaztenpresa  
fundazioa

# LANKIDETZAK

## ERAKUNDE SORTZAILEA

---



## ERAKUNDE KOFINANTZATZAILEAK

---



COMUNIDAD EUROPEA  
Fondo Social Europeo

Con la colaboración del Departamento de Empleo, Trabajo y Bienestar Social del Gobierno Vasco y del Fondo Social Europeo a través del Programa Operativo de Empleo competitivo y empleo 2007-2013



## KOLABORATZAILEAK

---




LAGUN ARO



## ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

---



## PARTE HARTZEN DUGUN SAREAK

---



# AURKIBIDEA

## **1. 2019ko TXOSTENAREN GUTUNA**

## **2. GURE GAINEAN:**

- Nortzuk gara
- Taldea
- Impaktua

## **3. JARDUNBIDEAK:**

- Enpresak sortzea
- Finantziazioa
- Enpresen finkapena
- Mentoring

## **4. KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEA:**

- Sariak
- Ekitaldiak
- Komunikazioa

## **5. PATRONATUA**

- Gardentasuna eta gobernu ona
- Urteko kontuak





**PERTSONAK  
EKINTZAILEAK  
by V  
GAZTENPRESA**

# 2019KO TXOSTENAREN GUTUNA

Gaztenpresan lanean ari gara ideia onak proiektu bideragarri bihurtu daitezzen. Gure ezagutzak eta ilusio guztia ekintzaileen zerbitzuan jartzen ditugu, enpresak jai eta lanpostu berriak sortu daitezela lortzeko. Horixe da gure eginkizun nagusia. Eta horrela, urtez urte, gizartea apur bat eraldatzea lortzen dugu, pertsonen bizitza hobetzen duten inpaktu positiboen fluxu etengabe baten bitartez.

Ezinezkoa da Gaztenpresak egiten duen guztia zenbakiz azaltzea, baina garrantzitsua da gure jarduna neurtzen saiatzea, horren bidez jakiteko zer egiten dugun ondo eta zer hobetu behar dugun; garrantzitsua da, halaber, hori guztia ezagutzera ematea, zeren asko baitira Fundazioaren zereginari laguntzen dioten pertsonak, eta beste asko gure lankidetzara beharrezkoa izan lezaketenak. Horiengatik guztiengatik, gure komunitatearen eskakizun sozialekin bat datorren kudeaketa gardena hartzen dugu gure gain.

2019an gure 25. urtemuga bete dugu. Gure gaurko errealitateak ez du zerikusi handirik gure ibileraren hasieran izan genuenarekin. Mundua aldatu egin da, eta geu ere berarekin aldatu gara, baina gure izateko arrazoiak bere horretan dirau; beharrezkoak izaten jarraitzen dugu, zeren eta, gaur egun, pertsona askok sostengua bilatzen baitute

etorkizun hobe bat lortzeko. 2019an, 405 enpresa-proiektu berri abiatu dira, 787 pertsonentzako enplegua sortuz. Eta ikuspegi historikoz begiratuta, 25 urteko ibilera horretan 5.700 enpresa baino gehiago eratzten lagundu dugu, eta, hortaz, 10.353 lanpostu sortzea ahalbidetu dugu. Harro egon behar dugu lortu dugunaz; aldi berean, baina, oraindik ere lortzeko dugun guztira zuzendu behar dugu gure begiratua.

Gaztenpresaren ibilera paregabea da, zalantzarik gabe. Hala eta guztiz ere, egoera ez da ospatzen ibiltzeko modukoa. Lerro hauek idazteko unean, iraganak bere garrantzia galtzen du, zeren orainaldi hurbilaren beharrak oso urgentzia handikoak baitira. Beraz, saihestezina da gure ahaleginak COVID-19aren eraginez aurrez aurre dugun krisi ikaragarrian zentratzea.

Pandemia gure zilarrezko ezteiak prestatzen ari ginenean etorri zen, eta horren ostean gure bizitza laboral eta pertsonala bat-batean aldatu zuen alarma egoera dekretatu zen.

Gero eta neurri handiagoan konturatu gara pairatzen ari garen krisiaren neurriaz, aurrena osasunaren alorrean eta hurrena ekonomiaren alorrean.

Oraindik ere goiz da aurrean dugun gainbehera ekonomikoaren inguruko ikuspegi lasai eta zorrotza izateko. Hala eta guztiz ere, jadanik hasi dira datu batzuk azaleratzen, eta muturreko larritasuna iragartzen dute. BPGaren erorialdi izugarriak eta langabeziaren igoerak egoera dramatikoak ekarriko dizkiete familia eta enpresa askori; horregatik, Gaztenpresan ahaleginak biderkatu behar ditugu egoera horiei buelta ematen laguntzeko. Izatez, jadanik hasi gara aparteko likidezia-bideak eskaintzen, LABORAL kutxaren bitartez, gure ekintzaile askoren egoera arintzeko.

Nolanahi ere, gizakiok badugu berezko gaitasun bat kontrako egoerei aurre egiteko, egoera horiek gainditzeko, eta baita indar handiagoz birsortzeko ere. Berezko erresilientzia hori are nabariagoa da ekintzaileen kasuan, bizitzaren kolpeak euren ikaskuntzaren zati gisa hartzeko gaitasuna dutelako. Alde horretatik, egokitzapen eta sormenaren adibideak azpimarratzekoak izan dira.

Hainbat eta hainbat ekintzailek jakin dute euren burua berrasmatzen, eta kasu askotan sistema sanitarioaren esku jarri dute euren elkartasuna, koronabirusak ezarri digun kinka larria gainditzeko.

Ekintzailetzaren eremua, beraz, ez da krisi honetatik kanpo geratuko. Adituen arabera, ekintzailetzak zuzeneko inpaktua jasango du, zeren Ekintzailetza Jardueraren Tasa (EJT) nabarmen jaitsiko baita baldintza finantzarioaren tentsioengatik eta jardueren amaieragatik.

Pandemia honek, alor ekonomiko eta sanitarioan ondorio hondagarriak izateaz gain, ezarritako paradigma asko aldatuko ditu. Eraldaketa honek zuzeneko eragina izango du ekoizpen-ehunean eta enpresaren eta bezeroaren arteko harremanetan, eta, hortaz, ekiteko modua berrasmatu beharko da berriz ere. Trantsizio saihestezin horretarako, Geztenpresa inoiz baino beharrezkoagoa izango da, talentua, finantziazioa eta bezeroak elkarrekin lotuz.

---

# GAZTENPRESARI BURUZ

---

1. Nortzuk gara
2. Taldeak
3. Impaktua





Talde moduan egingo dugu aurrera?



# NORTZUK GARA

Gaztenpresa  
Fundazioa LABORAL  
Kutxaren zeregin  
sozialaren zati da.

**Gure helburua da  
enplegua sustatzea  
eta finkatzea, enpresak  
sortzearen bidez.**

## 1 NORTZUK SOSTENGATZEN DITUGU:

- Pertsona ekintzaileak, haien adina zeinahi delarik ere.
- Garapen-proiektuak dituzten mikroenpresa gazteak.
- Laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten kolektiboak.
- Kultura ekintzailea sustatu nahi duten erakundeak.

## 2 GURE TALENTUA, BOLUNTARIOTZA

- Euren borondatez eta modu eskuzabalean fundazioari laguntzen dioten pertsona taldeak.
- Boluntarioen parte bat korporatiboa da (% 51), hau da, Mondragon Korporazioaren enpresaren batean lan egiten duten pertsonak dira, batez ere LABORAL Kutxakoak, eta beste partea Gaztenpresari atxikitako pertsonak dira (% 49).









**TALDEA**

## PATRONATUA

I. Urgoiti, O. Mugerza, S. Andrés  
I. Martínez J. Cortajarena, J. Sagastigordia, I. Peña

## KOORDINAZIO OROKORRA

I. Urgoiti, O. Mugerza, I. Ramos

### KOORDINAZIO TALDEA DNA + GAZTE

Borja Garate  
Ander Toñá  
Eñaut Erdoiza  
Gorka Zaldunbide

### KOORDINAZIO TALDEA SAREA + PRO + GAZTE

#### GIPUZKOA

K. Lazaga - I. Otaegi  
M. Loiola - N. Lopetegi  
I. Elortegi - A. Azurmendi  
A. Enparan

#### NAFARROA

A. Ozcoidi - E. Perez de Ciriza

#### BIZKAIA

P. Crespo - A. Berlanga  
J. Elorza - A. Godino  
I. Etxebarrieta - V. Gómez

#### ARABA

J.C. Diaz

### ARRISKUA DUTEN OPERAZIOEN BATZORDEA LERRO BEREZIA

Iñigo Martínez  
Valentin Gómez  
A. Enparan  
Borja Garate  
Inma Ramos


### MENTORING

YBS  
Borja Garate

Mentoring Manager  
Ana Artetxe

Equipo de  
Mentores/as





# IMPAKTUA

Sortutako Enpresen eta lanpostuen bilakaera 2019ra arte



---

## KONPROMISOA

---

- > Enpleguarekin
- > Gizartearekin

---

## BERRIKUNTZA

---

- > Balioa sortu

---

## LANKIDETZA

---

- > Sarean eta taldeka lan egin





**5.730**

ENPRESA SORTUTA



**10.353**

LANPOSTU SORTUTA



**gaztenpresa**  
fundazioa




Gaztenpresarentzat, garrantzitsuena pertsona ekintzaileak dira, hau da, askotariko arrazoiak direla medio egun batean urrats hori egitea erabaki zutenak, euren bizitza eta euren familien bizitzak hobetzeko; historia txikiak, pozez betetzen gaituztenak eta gure jarraitzeko eta hobetzeko motibazioa indartzen dutenak.

Txosten honetan, historia erreal horietako batzuk islatzen dira. **“Errealitate bihurtzen diren ilusioak”**.







**“Ametsak  
errealitate  
bihurtzen dira”**

Beatriz Aranda  
BE EVENT  
**EKITALDIAK**

BIZKAIA



**gaztenpresa**  
fundazioa

---

# PROGRAMAK

---

1. Enpresak sortzea
2. Finantziak
3. Finkapena
4. Mentoring









# ENPRESAK SORTZEA

ZURE PROIEKTUA ABIATZEN  
DUZUNEAN, HASIERATIK  
AMAIERARA ARTE GAUDE  
ZURE ONDOAN.



**Gaztenpresaren helburua da enplegua sortzen eta mantentzen laguntzen duten ekimenak sostengatzea eta ekintzak garatzea.**

Enpresa berriak abiatzen laguntzeko lanean dugun esperientzia oso erabilgarria izango zaizu zure negozioa martxan jartzeko egin behar dituzun urrats guztiei helderakoan.

1

Arreta eta aholkularitza pertsonalizatua.

2

Zure ondoan gaude behar duzun guztian: Negozio-plana aztertzea, tramiteak egitea, laguntzak eskatzea.

3

Finantziarioa, baldintza berezietan.



5

finkapena



4

finantziazioa

3

tramiteak



1

idela



2

negocio  
plana

5 urratsean  
ekintzaile  
izatera



gaztenpresa  
fundazioa

---

# 2019ko DATUAK


---

**405** ENPRESAK  
SORTUTA

**787** SORTUTAKO  
LANPOSTUAK

ARABA	65
BIZKAIA	182
GIPUZKOA	97
NAFARROA	61
<b>GUZTIRA</b>	<b>405</b>

ARABA	112
BIZKAIA	353
GIPUZKOA	190
NAFARROA	132
<b>GUZTIRA</b>	<b>787</b>





## “Paregabea da nire sorkuntzetatik bizitzea”

POHORYLLE

ARTISAU MOTXILAK



**gaztenpresa**  
fundazioa

# PERTSONA

## EKINTZAILEAREN PROFILA



**39** BATEZ  
BESTEKO  
ADINA



GIZONAK  
**%53**



EMAKUMEAK  
**%47**

### LAN EGOERA



ENPLEGUA HOBETU  
**%58**

LANGABEAK  
**%42**

### IKASKETA MAILA

BESTE IKASKETAK  
BATZUK

**%72**



UNIBERTSITATEKO  
IKASKETAK

**%28**

### JARDUERA SEKTOREA:



**%24**

MERKATARITZA



**%72**

ZERBITZUAK



**%3**

INDUSTRIA



**%1**

NEKAZARITZA  
ABELTZAINITZA

### SASOI JURIDIKOA:

**%77**

E. INDIVIDUALA

**%23**

SOZIJETATEAK

**%79**

SOZIJETATE  
MUGATUA

**%21**

KOOPERATIBA



“Neuk hartzen  
ditut erabakiak”

Iñigo Prado

**ZENTRO  
GASTRONOMIKOA  
ARDANDEGIA**



**gaztenpresa**  
fundazioa



# FINANTZIAZIOA

**Finantziario-plan bat egiteko laguntza, proiektuaren beharrak baloratzeko eta egokienak diren eta kostu txikiagoa duten finantziario-iturriak zehazteko.**

Ekintzaitelzarako finantziarioa eskura daiteke, baldintza berezietan, eta finantziario-hitzarmen espezifikoak ere bai. Europako Inbertsio Funtsa, Elkarrekiko Berme Sozietateak, Gizarte Ekonomiako Erakundeak

**348** EMANDAKO  
KREDITU

**FINANTZIAZIOA** 2019 AN  
**14.794.964 €**

**FINANTZIAZIOA** 2019RA ARTE  
**166 mill €**

**81.200€**

BATEZ BESTEKO INBERTSIOA

Batez besteko inbertsioa enpresa berriak abiatzeko.

**42.200€**

BATEZ BESTEKO MAILEGUA

Enpresa-proiektua gauzatzeko beharrezkoa den batez besteko mailegua.



**“Oso  
ilusionatuta  
erronka  
honetan”**

Naiara Pérez

**JOSTAILU-DENDA**



**gaztenpresa**  
fundazioa



# ENPRESEN FINKAPENA

Zure enpresa abian jarri ondoren ere,  
zurekin jarraituko dugu

- **Gaztenpresako Mentoreen Taldea:** enpresen kudeaketan esperientzia handia duten pertsonak, zure lehenengo urratsetan laguntzeko.
- **PRO Mintegiak eta Gaztenpresa Tailerrak:** zure negozioaren kudeaketan eguneratuta egoteko prestakuntza..
- **Consulting PRO:** kudeaketaren inguruan egunez egun sortzen zaizkizun zalantzak argitzeko (zerga eta legen alorreko gaiak, laguntzak...).
- **Networking:** beste ekintzaile batzuekin kontaktatzea, esperientziak eta jardunbide egokiak konpartitzeko.



**50**  
TAILER  
EGIN DIRA



**878**  
PERTSONA  
BERTARATU



**952**  
KONTSULTAK  
CONSULTING PRO



**176**  
ENPRESA  
FINKAPEN FASEAN



**“Gehien  
gustatzen  
zaidanaz  
gozatzen dut  
eta hortik bizi  
naiz”**

Gorka Basterretxea

**ARTE GALERIA**



**gaztenpresa**  
fundazioa



# MENTORING PROGRAMA

**Akonpainamendu pertsonalizatua bilatzen dizugu, zure negozioa sendotzen laguntzeko.**

Enpresen kudeaketan esperientzia duen mentore batek bere laguntza eskaintzen dizu, bere borondatez, zure kudeaketa-gaitasunak hobetzeko.

## Ekintzailearentzako onurak

- Negozioari buruzko erabakiak hartzeko prozesua hobetzea.
- Sarea zabaltzea, esperientzia handiko pertsonekin kontraste zorrotza egiteko.
- Ikaskuntzarako espazio berri bat irabaztea.

## Mentorearentzako onurak

- Enpresa gazteen ehuna sendotzen laguntzea.
- Gizarteari ekarpena egitea, ezagutza eta esperientzia ekarriz.
- Ikaskuntzarako espazio berri bat irabaztea.

**33**

**PRESTATUTAKO  
PERTSONA  
EKINTZAILEAK**

**18**

**PRESTATUTAKO  
PERTSONA  
MENTOREAK**

**20**

**HARREMANAK  
2019 AN**

**134**

**HARREMANAK  
2019RA ARTE**



Talde moduan egingo dugu aurrera?



31

gaztenpresa  
"Enpresa-ikuspegi  
handiagoa behar  
nuen"

 Lanbide  
Euskal Enplegu Zerbitzua  
Servicio Vasco de Empleo  
AZUL MARIPOSA  
Komunikazio Agentzia  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Nagore Ardanza  
MENTORA

gazte  
gaztenpresa  
fundazioa



---

# KULTURA EKINTZAILEA

---

1. Sariak
2. Ekitaldiak
3. Kanpainak







# SARIAK

Fundazioaren helburuetako bat kultura ekintzailea gazteen artean sustatzea da.



Sostengatutako sari eta programak, honako hauen lankidetzarekin:

> **MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

> **TECNUN NAFARROAKO UNIBERTSITATEA**

> **BIZINTEK INGENIARITZA**

> **GOOGAZ (EKINTZAIETZA ETA ENPLEGUA)**

> **AFRICA BASQUE CHALLENGE**

> **DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEKO GARAPEN AGENTZIAK**





Kultura ekintzailea sustatu nahi duten unibertsitate, lanbide heziketako zentro, enpresa eta erakundeak sostengatzen ditugu.

---



# MONDRAGON UNIBERTSITATEA

---

## Changemaker Lab" ekintzailtza programaren I. Edizioa

Changemaker Lab ekintzailtza programa bat da, Mondragon Unibertsitateko edozein fakultatetako ikasleei zuzendua, helburutzat duena diziplina anitzeko taldetan ekiten ikastea.

Ekimena MTA metodologian oinarritzen da, eta 'bootcamps' formatua du, hau da, tailer trinkoak dira, non teoria eta jarduerak konpartitzen baitira kasuko gaien adituak diren pertsonen eskutik, proiektu errealetan aplikatzeko.

### 1. SARIA: MAAT – MARRATIK KANPO PINTATUKO DUGU

Proiektu honen helburua da sormen, komunikazio, sexu-heziketa eta adimen emozionalaren alorretan gaur egungo hezkuntzan dagoen gabezia nolabait betetzea.

### 2. SARIA: GURE

Funtzio anitzeko botila bat da, tolesgarria, erabilgarria eta ekojasangarria, Nazio Batuek proposatutako garapen jasangarriaren helburuetako batean oinarrituta.



## TECNUN NAFARROAKO U.

### Concurso Ingenio y Diseño (Edición XV):

Lehiaketa honen helburua da berrikuntza eta ekintzailetzarekin, sormenarekin eta taldekako lanarekin lotutako balioak eta jarrerak sustatzen laguntzea. Proiektu teknologikoen lehiaketa bat da.

### SARITUTAKO PROIEKTUAK:

- HAIZEAREN TUNELA
- BIZIKLETARAKO KARGAGAILU MUGIKORRA
- KONTSUMOAK KONTROLATZEKO SISTEMA



## KIMUBERRI-GAZELA SARIAK

Kimuberri-Gazela eskualdeko unibertsitate-ikasleei zuzendutako lehiaketa bat da, helburutzat duena Gazela enpresaren eredu multzo bat aztertzea eta Debagoienerako baliagarria izan daitekeen Eredu bati egokitzea.

Lehiaketaren antolatzailea Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentzia izan da, Gipuzkoako Aldundiaren eta Gaztenpresaren lankidetzarekin.





# BIZINTEK

---

Bizintek ingeniarietza-etxeak, Gaztenpresa eta Bizkaiko Aldundiarekin batera, berrikuntza sustatzen du belaunaldi berrien artean, ingeniari gazteak sostengatuz eta 4.0. industriarako proiektu abangoardistak bistaratzuz. Hiru sari ditu:

## GRADU AMAIERAKO PROIEKTURIK ONENA:

**1. Saria: Carlos Salinas Álvarez,** Deustuko Ingeniaritza Fakultatea. Irtenbide teknologiko ez-intrusibo bat da, bakteria-infekzioak zaurietan denbora errealean detektatzeko. Ekimen berritzaile bat da, Deustuko Unibertsitateak, Luisvilleko Unibertsitateak (AEB) eta Bilboko Santa Marina ospitaleak lankidetzan garatua.

**2. Saria: Javier de Martin Gil, UPV/EHU,** Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua. Adimen artifiziala mugikortasun jasagarriarekin lotzen duen proiektu bat.

**3. Saria: Adrian Irigoyen Iraundegi, UPV/EHU** Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua.

Monitorizazio industrialeko 4.0 sistema bat da, hodeian jarritako datu-base batez eta Android web aplikazio batez baliatzen dena. Prozesu berritzaile honek ahalbidetzen du asetzeari enpresa-munduak 4.0 industriari atxikitzeko gaur egun duen beharra.



## GOOGAZ

Ekintzailtza eta Berrikuntza Graduko (LEINN) gazte talde batek sortutako mugimendu bat da, helburutzat duena Bizkaiko gazteak ekintzailtzarako motibatzea. Ekimenaren bigarren edizioa, Nazio Batuek 2030rako plazaratutako GJHetan oinarritua, Bizkaiko Foru Aldundiaren, UNESCO Etxearen eta Gaztenpresaren sostenguari esker.

Proiektuak hiru fase ditu:

- “Udal mailako Scape Room” bat.
- Tokiko irabazleak Bizkaia mailan lehiatuko dira.
- Talde irabazleak Mexikora bidaiatuko du, IATA Pueblako Unibertsitate Iberoamerikarraren bootcampean parte hartzeko.



## AFRICA BASQUE CHALLENGE

“Mind the gap” Africa Basque Challenge izeneko lehiaketa gizarte- eta enpresa-ekimenen garapena sutatu nahi duen programa bat da; ekimen horien helburua da garapen inklusiboa landa-komunitateetan garatzea eta hiri-ingurunearen eta landa-ingurunearen arteko desberdintasunak murrizten laguntzea.

MUNDUKIDE, LKS, Mondragon Team Academy, PLO Lumumba Foundation, The Management University of Africa eta Freedom Farms Limited, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta beste eragile batzuekin batera, lankidetzan aritzen dira kulturartekotasunez kolaboratzen duten gazteek elkarrekin sortutako gizarte- eta enpresa-errealitate berriak sustatzeko. Gaztenpresa epaimahaikidea izan zen.



# EKITALDIAK

Ekitaldietan parte hartzen dugu, fundazioaren lana ekintzaileei ezagutzera emateko, haien adina zeinahi delarik ere.



Ekitaldi guztien artean, honako hauek azpimarratzen ditugu:

> B-VENTURE

> CITA EMPRENDE

> START INNOVA EDUCA

> MERKALAN

> BASQUE CULINARY CENTER



> EUROPAKO MIKROFINANTZEN  
SAREAREN BATZARRA

> WATS-BALIOAK KIROLEAN

> TECHSTARTS STARTUP WEEK

## WATS

Indarkeria hezkuntzaren bidez desagerraraztea

WATS metodologia Mondragon Team Academy-n (MTA) sortu zen. Beraren eginkizuna da indarkeria kiroletik desagerraraztea, hezkuntzaren bitartez, kompetentziak eta balioak ikasteko ingurune berritzaileak sortuz.

Gaztenpresatik proiektua sostengatzen jarraitzen dugu, ekitaldien zati bat babestuz eta Eibar eta Bilbon egin diren bi ekitaldien jarraipena eginez, sare sozialen bitartez.



## B-VENTURE

Ekintzailetzaren alorreko ekitaldirik handiena.

Ekintzailetzaren alorreko ekitaldirik handiena. Lau edizioetan 400 startup-ek baino gehiagok parte hartu dute.

Topagune bat startupak, software-enpresak, marketing digitalekoak, crowdfunding, proiektu-azeleratzaileak eta Gaztenpresa biltzeko. Zenbait espaziotan banatuta dagoen baino oso ikuspegi praktikoa duen ekosistema bat.

Gaztenpresak bere stand propioa izan zuen.





## TECHSTARS STARTUP WEEK

E-dreamers, sostengua ekitaldiaren hitzaldi batean.

Techstars Startup Week™ nazioarteko ekintzailetzaren ekosistemako ekitaldi garrantzitsuenetako bat da. Los Angeles, New York, Sydney, Taipei, Bangkok, Mexiko Hiria, Dublin eta beste hiri askok urtero antolatzen dute, eta orain Bilbo atxiki zaio puntako berrikuntza-ekosistemen zerrenda horri.

Hizlari gisa parte hartu zuten erakundeetako bat E-Dreamers da, "Ekintzailetza Digitala: Berrikuntza Digitalari eta plataformen Sorkuntza eta Hazkundeari buruzko Printzipioak" izeneko hitzaldi batez. Hizlaria Rubén Mancha izan zen (Babson Collegeko informazio-sistemen irakaslea).

## MERKALAN

Enplegu eta prestakuntza azoka

Bi egunetan, 6.000 pertsona inguruk azoka bisitatu zuten lan eta prestakuntzari buruzko informazioa jasotzeko, azokan stand propioa izan zuten 54 enpresaren baino gehiagoren aldetik.

Halaber, hitzaldiak egin ziren workshop eremuan, lan-proiektu eta -aukerak aurkezteko erreserbatutako espazio bat baitzen. Gaztenpresak laguntza eman zuen Ekintzailetzaren standean.





# KANPAINAK

**Gaztenpresak zenbait kanal erabiltzen ditu helburu hirukoitz batez: informazio baliagarria eskaintzea ekintzaile izan nahi duten pertsoneri, jadanik horretan dihardutenak bistaratzeko, eta plataforma berriak irekitzea zalantzak dituzten pertsona guztiak atenditzeko.**



## KANPAINAK HEDABIDEETAN

Kanpainak egiten dira hedabideetan, bai fundazioaren zeregina ezagutzera emateko eta bai sostengatutako enpresak bistaratzeko. Garrantzitsuenak honako hauek dira:

- **KANPAINAK HEDABIDEETAN:** Prentsa, irratia... laguntza jaso duten ekintzaile-taldeek protagonismoarekin.
- **KARTELAK SUKURTSIALETAN**
- **ERREPORTAJEAK LAGUNDUTAKO ENPRESEI:** 20 enpresa baino gehiago elkarriketatu dira.
- **URTEKO TXOSTENA**
- **ONLINE KANPAINAK**

# BIZI ZURE IDEIETATIK

SORTU ZURE NEGOZIOA

## GAZTENPRESA<sup>REKIN</sup>

Erabakirik onenak hartzen lagunduko dizugu, proiektuaren hasieratik negozioa finkatu arte.

Eskatu informazioa LABORAL Kutxan edo [www.gaztenpresa.org](http://www.gaztenpresa.org) webgunean

BIDERAGARRITASUNA

NEGOZIO-PLANA

TRAMITEAK ETA  
DIRULAGUNTZAK

FINANTZAKETA

FINKAPENA



Laguntzailea



Gaztenpresa Fundazioa



**LABORAL**  
kutxa

Bada beste modu bat

Mahasti Atsedena, jendeari lagutzeko proiektu gutxiak

Las chicas de Mahasti Atsedena, jendeari lagutzeko proiektu gutxiak, enpresa berria sortu duen bitartean, bere proiektuak zuzentzen jarraitzen du.

Mahasti Atsedena, jendeari lagutzeko proiektu gutxiak, enpresa berria sortu duen bitartean, bere proiektuak zuzentzen jarraitzen du. Enpresa berria sortu duen bitartean, bere proiektuak zuzentzen jarraitzen du.



GAZTENPRESA PROMOCIOA ERAGITZEN DUEN 415 NOBIAZ ENPRESAK 2018AN

00.000
Enpresa berria sortu duen bitartean, bere proiektuak zuzentzen jarraitzen du.



GAZTENPRESA AYUDA A CREAR 415 EMPRESAS Y 812 EMPLEOS

La Fundación vasca de empresas de Euzkadi ha dado un impulso a la creación de nuevas empresas...

Gazte enpresak sortu zituzten bitartean, bere proiektuak zuzentzen jarraitzen du.

LABORAL el espacio

El espacio



LABORAL las

LABORAL sik

LABORAL

LABORAL

LABORAL

LABORAL

LABORAL

LABORAL

Pioneros en la gestión de tiendas 'online'

Ohia atzeratzen dituzten enpresak, Adolfo Dorriago eta Berta eta Loli de Salazar...

Adolfo Dorriago eta Berta eta Loli de Salazar...



Ohia atzeratzen dituzten enpresak, Adolfo Dorriago eta Berta eta Loli de Salazar...

Análisis de datos contra el despido

Bigi Soluciones analitika erabiltzen du enpresak, lanbide-eremuaren aurkako...

Bigi Soluciones analitika erabiltzen du enpresak, lanbide-eremuaren aurkako...



Bigi Soluciones analitika erabiltzen du enpresak, lanbide-eremuaren aurkako...

Aventura y naturaleza tras quedarse en paro

Azken gutxiak baino gehiago dituzten enpresak, lanbide-eremuaren aurkako...



Azken gutxiak baino gehiago dituzten enpresak, lanbide-eremuaren aurkako...

Ciberseguridad y garantías para las empresas

JakiCode enpresak, lanbide-eremuaren aurkako...

JakiCode enpresak, lanbide-eremuaren aurkako...



JakiCode enpresak, lanbide-eremuaren aurkako...

Estructuras para la energía del futuro

La empresa ibaitzabel en el sector de estructuras fotovoltaicas y media...

La empresa ibaitzabel en el sector de estructuras fotovoltaicas y media...



La empresa ibaitzabel en el sector de estructuras fotovoltaicas y media...

PLAN DE EMPRENDEDORIO GAZTENPRESA. Logo of Larriarte and other partners.

JAKI CODE. Logo and contact information.

IBAITZABEL. Logo and contact information.

00.000
Enpresa berria sortu duen bitartean, bere proiektuak zuzentzen jarraitzen du.



# on line KANPAINAK

**Gaztenpresa**  
Publicidad · G

Te ayudamos a que tu proyecto despegue 🚀  
Apúntate: el 27 de febrero, de 9 a 11, en Bilbao.  
#mentorgaztenpresa #mentoring #PonUnMentorEnTuVida



**DESPEGA**  
TALLER MENTORING

GAZTENPRESA.ORG  
¿Pensas en emprender?  
(Pon en mentoría en tu vida!)

Regístrate

1 comentario · 6 veces compartido

Me gusta · Comentar · Compartir

**Gaztenpresa**  
Publicidad · G

¿Quieres compartir tu experiencia empresarial? Guía a un joven emprendedor haciéndote mentora.  
Apúntate al Taller para Mentoras el 26 de junio en Bilbao.  
#mentorgaztenpresa #mentoring



**COMPARTE TU EXPERIENCIA**

GAZTENPRESA.ORG  
¡Anímate a ser Mentora!  
Comparte tu experiencia

Regístrate

1 comentario

Me gusta · Comentar · Compartir

**Gaztenpresa**  
Publicidad (demostración) · G

Aprende a generar facturas en PDF con firma electrónica. 📄  
Apúntate: el 15 de mayo, de 10 a 14 horas, en Vitoria-Gasteiz.  
#FacturaElectronica #FirmaDigital #CursosGaztenpresa



**CURSO**  
**FACTURAS ONLINE**

¡Pásate a la firma electrónica!

GAZTENPRESA.ORG  
Plazas limitadas  
5-8 personas. Gratuito

Regístrate

**Gaztenpresa**  
Publicidad · G

Ser buen anfitrión está muy valorado en hostelería.  
#CursosGaztenpresa | Taller Valores del Anfitrión  
24 de septiembre · De 9-30 a 14:30 horas · Donostia



**Taller Hostelería**  
Atención al cliente

GAZTENPRESA.ORG  
**Taller Gratuito**  
Inscríbete aquí. Plazas limitadas.

Regístrate

Eva García Puerto, Johanna Rivero y 12 personas más

Me gusta · Comentar · Compartir

# WEB/SAREAK




## SOCIAL MEDIA

Social Median dugun presentzia nabarmen hobetu da argitalpen eta material grafiko ikusgarriago eta erakargarriagoekin, kanal guztietan ildo koherente bat eskainiz.


Profilak berraktibatu dira eta oso metrika positiboak lortu dituzte.

Eduki korporatiboagoak inpresioen indize handiak lortu ditu LinkedIn sare sozialean, eta eduki dinamikoagoek oso ondo funtzionatu dute Facebook eta Instagramen.


Media center berri bat garatu da webgunean, ekintzaileei zuzendutako multimediako edukiak, infografiak eta aholkuak biltzeko, erabiltzaile moduan duten esperientzia hobetzeko xedez.



El carácter de una  
persona  
emprendedora



Competencias  
emprendedoras




Antes de  
emprender: cuatro  
preguntas



Resumen de  
actividades 2018




Excusas que te  
impiden  
emprender



El carácter de un  
emprendedor



Cambios en la  
cultura laboral



Hitos 2018



---

# PATRONATUA

---

1. Patronatua
2. Urteko kontuak



# PATRONATUA

**Patronatua Fundazioaren gobernu-, administrazio- eta ordezkaritza-organo gorena da, eta Fundazioaren kudeaketari lotutako zuzendaritza- eta kontrol-eskumenak ditu, hau da, sortze-helburuak betetzeko beharrezkoak diren eskumenak.**

**Gaztenpresa Fundazioak txosten honetan aurkezten diren egoera-orri ekonomikoen auditoria bat egiten du urtero.**



## **GARDENTASUNA ETA GOBERNU ONA:**

Gaztenpresa Fundazioa erakundeak modu egokian funtzionatzea xedetzat duen kudeaketa-sistema baten bidez gidatzen da.

Gardentasun eta ardurarekin, gobernu- eta ordezkaritza-eginkizunak une bakoitzean gauzatzen dituzten pertsonak zeinahi direlarik ere.

Gardentasuna eta gobernu ona beharrezko tresnak dira, haren ibilbide luzearen hasieratik eta haren etorkizuneko iraunkortasunerako.

Estu lotuta daude konfiantza bere interes-talde guztiengan sortzarekin: pertsona ekintzaileak, enpresak, bertan lan egiten duten profesionalak, kolaboratzaileak, gobernuak, eta abar.



Gaztenpresa Fundazioaren  
Patronatua honako pertsona  
hauek osatzen dute:

.....  
**Presidentea:**

IBON URGOITI  
.....

**Presidenteordea:**

OSCAR MUGUERZA  
.....

**Idazkaria:**

SUSANA ANDRÉS  
.....

**Batzordekideak:**

IÑIGO MARTINEZ  
JAVIER CORTAJARENA  
JOSEBA SAGASTIGORDIA  
IÑAKI PEÑA  
.....

---

# EGOERAREN BALANTZEA 2019

---

<b>AKTIBOA</b>	<b>2019</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>	<b>2019</b>
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>87.469</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>339.192</b>
		<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>722.303</b>
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>1.185.689</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>211.663</b>
<b>AKTIBO GUZTIRA</b>	<b>1.273.158</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>1.273.158</b>

\* Eurotan adierazita.

# Galera eta irabazien kontua 2019

A) EKITALDIAREN SOBERAKINA	2019
<b>OPERAZIO JARRAITUAK</b>	
1. Jarduera propioaren sarrerak	1.196.647
a) Promozio, babesle eta laguntzaileen bidez eskuratutako sarrerak	916.647
b) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	280.000
2. Salmentaren eta merkataritza-jardueraren beste sarrera batzuk	-
2. Gastuak diru-laguntzengatik eta beste batzuegatik	(508.548)
a) Diruzko laguntzak	(8.840)
a) Diruz besteko laguntzak	(499.708)
3. Jardueraren beste sarrera batzuk	757
4. Jardueraren beste gastu batzuk	(619.170)
5. Ibilgetuaren amortizazioa	(3.086)
6. Hornigaien gehiegizko kantitatea	-
<b>JARDUERAREN SOBERAKINA</b>	66.600
7. Finantza-sarrerak	-
8. Finantza-gastuak	(45)
<b>FINANTZA-OPERAZIOEN SOBERAKINA</b>	(45)
SOBERAKINA, ZERGEN AURRETIK	66.555
11. Mozkinen gaineko zerga	-
<b>ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIAREN SOBERAKINEAN AITORTUA</b>	66.555
ERRAKUNTZEK ERAGINDAKO DOIKUNTZAK	-
<b>OSOKO EMAITZA, ONDARE GARBIAK EKITALDIAN IZANDAKO ALDAKETA</b>	<b>66.555</b>

\* Eurotan adierazita.



# Nondik hasi

---

Ausartu zaitetz zeure negozioa abian jartzen.

**Konta iezaguzu zure negozio ideia:**

[www.gaztenpresa.org/eu/  
konta-iezaguzu-zure-negozio-ideia/](http://www.gaztenpresa.org/eu/konta-iezaguzu-zure-negozio-ideia/)

## GAZTENPRESA FUNDAZIOA

[www.gaztenpresa.org](http://www.gaztenpresa.org)



900 101 143



[info@gaztenpresa.org](mailto:info@gaztenpresa.org)

## LABORAL KUTXAREN

### BULEGO SAREA



901 333 444



[kontaktatu@laboralkutxa.com](mailto:kontaktatu@laboralkutxa.com)



**“Zerbait  
propioa  
eduki nahi  
nuen”**

JURGI AREJITA

**OSTALARITZA  
ONDORI BOTXO**



**gaztenpresa**  
fundazioa



[www.gaztenpresa.org](http://www.gaztenpresa.org)

